

2024/08/31ra

Inbertsio-politika (laburpena)

Funtsak esposizioaren %75 eta %100 bitartean herrialde emergenteetako jaulkitzaileen errenta aldakorrean inbertituko du. Gainerako zatia errenta finkoan inbertituko da, barne hartuz gordailuak eta diru-merkatuko tresnak, kotizazioak izan ala ez, likidoak izanik. Aldez aurretik ez da ezer erabakitzen jaulkitzaileei buruz, edo baloreek kotizatzeko duten herrialde/merkatuei, jaulkipenen nahiz jaulkitzaileen rating-ari, dibisa-arriskuarekiko esposizioaren portzentajeari, zorroaren batez besteko iraupenari, burtsako kapitalizazioari edo sektore ekonomikoari buruz.

*Funtsak, bere inbertsioekin, ingurumen alderdiak edo/ta alderdi sozialak sustatzen ditu (2019/2088 (EB) Erregelamendua 8. artikulua) eta kontrako gorabehera nagusiak (inbertitzen dituen enpresek ingurumenean eta/edo gizartearen eragindako inpaktu negatiboak) arriskuen azterketan eta inbertsio-erabaketan txertatzen ditu.

*Inbertsio-politikaren azalpen xeheagoa funtsaren IFD dokumentuan ikus daiteke.

*FUNTS HONEK %25 INBERTI DEZAKE ERRENTA FINKOKO KREDITU-KALITATE TXIKIKO JAULKIPENETAN, BERAZ, KREDITU-ARRISKU HAUNDIA DAUKA.

Ezaugarri Orokorrak

Ondarea:	5.494.921,64
Komisioak guztira:	%2,00
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenboltso Komisioa:	%0,00
Fondo mota:	NAZIOARTEKO ERRENTA ALDAKORRA
Arrisku-profila:	4 1-etik 7- rako eskalan
Inbertsiorako gutxieneko epea:	5 urte

2024/08/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa*	Urtekoa*	Urte 1	3 urte	5 urte
-%0,90	%2,10	%6,30	%7,95	-%4,90	%1,13

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.


2024	2023	2022	2021	2020	2019
%6,30	%3,51	-%19,54	%1,00	%7,29	%18,89

*Iraganeko errentagarritasunak ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunak.

2024/08/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%11,39
Lurrunkortasun 3 urte**	%13,73

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzintasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.




Hileko iruzkina

Abuztua AEBren berehalako atzeraldiaren desafioarekin hasi zen, haren lan-merkatuak izandako desazelerazio sendoaren eta jarduera-adierazle batzuen ahultzearen ondoren. Inbertitzaileak kezkatuta zeuden atzeraldi arrisku hori FED murriztaile bat denbora gehiegiz aplikatzeagatik ote den. Baina sentimendu hori hasierara itzuli da, urteko hazkuntza erritmo onean hazten ari dela dioen datua jaso ondoren. Bien bitartean, Txinak ahul jarraitzen du, eta pizgarriak jarraitzen ditu iragartzen, eta itxaropenak zaputzen jarraitzen du. Arlo geopolitikoan, gatazka beliko irekiek okerrera egin dute, AEBan hauteskondeen borroka berpiztu da, alderdi demokrataren hautagaitza berriekin, izan ere, hurrengo presidentea nor izango den zalantzan jarri baita berriz. Oro har, aipaturiko guztiarekin batera, prezio batzuen eboluzio-datuek inflazioa moteltzen ari dela adierazten dute, eta atea irekiko dizkie interes-tasen beherakada berriei. Beraz, 2024an bertan Fedarentzat espero ziren tasen mozketako puntu portzentuala espero dute inbertitzaileek, duela bi aste urtea aldaketarik gabe bukatuko zela esaten bazen ere. Finantza arloan, Japonia aipatu beharra dago, izan ere, yenenaren ahulezia hobetzen saiatzean merkatuetan ezusteko handia sortu baitzuen abuztuaren hasieran, mezu zorrotzgiarekin. Inbertitzaile sofistikatuenen carry trades direlakoan itxiera desordenatu bati beldurrak, zeinak merkatu globaletan inbertitzeko yenetan tasa baxuekin finantzatzeko ziren, burtsen eroriko azkarrak ekarri zituzten: Japonian -% 25tik gorakoak, egun merkatuen bilakaera ona erakitzen den nolabaiteko zaurkotasunaren adierazle. Edonola ere, Japoniako agintariekin berehalako erabakia egin zuten atzera, eta merkatuak lasaitzea lortu zuten. Agertoki horren aurrean, burtsek "Astelehen beltz" deritzon zorigaitzeko egunarekin hasi zuten hilabetea, munduko indize nagusien eroriko handien ondorioz. Hala ere, hilabeteak aurrera egin ahal, datu makroak argitaratzeak, hazkunde ekonomiko neurritsua iradokiz eta, neurri batean, AEBetako ekonomiaren bat-bateko atzeraldiaren beldurrak uxatuz, enpresa-emaizta onargarriekin eta Fed-eko presidentea Jackson Hole-ko bankarien sinposioan irailean tipok jaisteko prest egongo zela iragarri izanarekin batera, inbertitzaileak animoz betetzen zituen. Agertoki honen emaitza planetako hiru eremu handietan, Asian, Europan eta Estatu Batuetan burtsaren indize nagusien hobekuntzan islatu zen. Errenta finkoari dagokionez, tasa subiranoren jaitsiera handiak bizi izan ziren Estatu Batuetan bereziki, eta kurbaren tarte laburrean. Bien bitartean, kredituaren jarrera ona, diferentzialak estutuz. Bukatzeko, dolarrak balioa galdu zuen euroarekiko, eta 1,10\$/eur truke-tasa gainditu zuen.

Errenta aldakorrean posizio nagusiak

ACTIBO	PISU
ETF. ISHARES CORE MSCI EM IMI UCITS USD	%13,39
ETF. AMUNDI MSCI EMERGING MARKETS UCITS	%13,11
ETF. XTRACKERS MSCI EMERG.MARKETS UCITS	%13,05
PT. NORDEA 1 EMERGING STARS EQUITY BI EU	%4,56
PT. FIDELITY FDS-EMERG MK-Y I AC USD	%4,55

Errenta aldakorreko zorroaren banaketa geografikoa



Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza pertsonalizatua, ez eskaintza, eta ez eskara ere. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharrekiko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatzena batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, funtsaren eskuratzeko balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioegileak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtsaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, entitate komertzializatzaileen webgunean eta CNM/ren erregistroetan kontsulta daitezke.